

## LUZERA

Luzera neurriko oinarrizko unitatea **metroa** da . Bere ikurra **m** da . Luzera txikiak neurtzeko **zentimetroa** deritzon unitate batekin egiten ditugu konparaketak. Zentimetrotan adierazteko **cm** ikurra erabiltzen dugu.

**Dezimetroa** deritzon unitate batekin ere luzera neur dezakegu .Dezimetroaren ikurra **dm** da .

**Milimetroa** deritzon unitatea erabil dezakegu . Milimetroaren ikurra **mm** da .

**Metroak 10 dezimetro edo 100 zentimetro dauzka edota 1000 mm**  
**1 m = 10 dm = 100 cm = 1000 mm**

Luzera handiak neurtzeko , adibidez , hirien arteko distantziak , **kilometroa** deritzon unitatea erabiltzen dugu . Kilometroaren ikurra **km** da.

**Hektometroa** ikurra **hm** da eta **dekametroa** ikurra **dam** da

**Kilometrok mila metro esan nahi du**

$$\begin{aligned}1 \text{ km} &= 1000 \text{ m} \\1 \text{ hm} &= 100 \text{ m} \\1 \text{ dam} &= 10 \text{ m}\end{aligned}$$

|    |    |     |   |    |    |    |
|----|----|-----|---|----|----|----|
| km | hm | dam | m | dm | cm | mm |
|----|----|-----|---|----|----|----|

1. Eralda itzazu metroak dezimetrora:

$$1 \text{ m} = 1 \times 10 \text{ dm} = 10 \text{ dm}$$

$$6 \text{ m} =$$

$$2 \text{ m} =$$

$$9 \text{ m} =$$

2. Eralda itzazu metroak zentimetrora:

$$6 \text{ m} = 6 \times 100 \text{ cm} = 600 \text{ cm}$$

$$3 \text{ m} =$$

$$1 \text{ m} =$$

$$7 \text{ m} =$$

3. Zenbat milimetro daude metro batean? Eta bost metrotan?

4. Gela batek 3 m 7 dm-ko zabalera dauka. Zenbat **dezimetro** dira?

5. Koldok 2 m 7 dm-ko soka bat erosi du. Zenbat **zentimetroko** luzera dauka?

6. Oinezko batek 768 metro egin ditu. Zenbat falta zaio **kilometro bat** osatzeko?

7. Idatzi erantzunak:

- Zenbat metro dira bi kilometro?
- Zenbat metro dira bost kilometro?
- Zenbat metro dira hiru dekametro?
- Zenbat metro dira lau hektometro?

8. Erlazionatu berdinak diren neurriak:

|           |       |
|-----------|-------|
| 3 dm 5 cm | 35 cm |
| 1 m 5 dm  | 36 dm |
| 3 m 6 dm  | 56 cm |
| 5 dm 6 cm | 15 dm |

9. Osa ezazu multzo bakoitza lau kantitateen batura **metro bat** osatzeko:

|      |      |
|------|------|
|      | 4 dm |
| 2 dm | 3 dm |

|       |       |
|-------|-------|
| 20 cm | 25 cm |
| 15 cm |       |

|       |       |
|-------|-------|
| 25 cm | 25 cm |
|       | 45 cm |

10. San Andresetik Errotaberrira 15 kilometroko distantzia dago. Zenbat **metro** egiten dira leku batetik bestera joateko?